



UDAL AUKERAK Newsletterra:

Finantziazio-aukerak,
euskal toki-erakundeentzat

2026ko martxoa

AURKIBIDEA

- DEIALDIAK ZABALIK3-9 or.
- Udal Aukerak zerbitzua10 or.



Ingurune Naturala eta
Nekazaritza Sustatzeko
Saila – **BIZKAIKO
FORU ALDUNDIA**

KLIMA-ALDAKETAREN ETA ENERGIA-TRANTSIZIOAREN ARLOKO JARDUKETAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK. 2026.

Azken hartzaileak: Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateak, baldin eta klima-aldaketarekin eta energiarekin lotutako jarduerak egiteko ardura badute.

Deskribapena: Foru-dekretu honen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei eta mankomunitateei dirulaguntzak lehia-konkurrentziaren araubidean emateko oinarriak eta deialdia ezartzea, 2026ean klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloko inbertsio-proiektuak eta jarduketak egiteko.

Aurrekontua: 2.215.000 €

*Ikusi FITXA

**2026/03/02
(17:00etan)**

Herri Administrazioarako
eta Erakunde
Harremanetarako Saila –
**BIZKAIKO FORU
ALDUNDIA**

ERABILERA EDO ZERBITZU PUBLIKOEI ATXIKITAKO AZPIEGITURETAN UDAL-ESKUMENENKO INBERTSIOAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

Azken hartzaileak: 2025eko urtarrilaren 1ean udal erroldan dauden datuen arabera, 7.500 biztanle edo gutxiago dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak.

Deskribapena: Dirulaguntza hauen xedea da erabilera publikoari atxikita geratuko diren edo zerbitzu publiko baterako izango diren ondasunak eraiki edo hobetzeko udal-eskumeneko jarduketak sustatzea, azpiegitura horiek maila egokia lortzeko.

Aurrekontua: 3.000.000 €

*Ikusi FITXA

2026/03/03

IDAE

ERREGAI FOSILETATIK ABIATUTAKO EKOIZPENA ORDEZTEKO, ENERGIA BERRIZTAGARRIEN BIDEZ ELEKTRIZITATE ETA BERO EKOIZPENEN PROIEKTUETARAKO PIZGARRI PROGRAMAREN BIGARREN DEIALDIA (RENOCOGEN PROGRAMA) – NGEU

Azken hartzaileak: pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, eta pertsona juridikoen taldeak, publikoak zein pribatuak, nortasun juridiko propiorik gabeak, baldin eta laguntza hau ematea eragin duten proiektuak edo jarduerak egiten badituzte.

Deskribapena: erregai fosiletan oinarritutako egungo instalazioak (kogenerazioa edo hondakinen tratamendua) energia berriztagarrietatik eratorritako elektrizitate eta/edo bero ekoizpenarekin ordezkatzeko dituzten proiektuetarako laguntzak. Instalazio berriztagarriak finantzatzen dira, biltegitratzea dutenak edo ez dutenak, eta horrela deskarbonizazioan eta energia sistemaren kostuen murrizketan lagunduko dute.

Aurrekontua: 50.000.000 €

HIRI ETA LURRALDE ADIMENDUNAK BULTZATZEKO PROGRAMA, GARAPEN EKONOMIKOA ETA PRODUKTIBOA SUSTATZEKO

Azken hartzaileak: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikuluan definitutako toki-erakunde guztiak, bai eta probintzia bakarreko autonomia-erkidegoak eta hiri autonomoak ere.

Deskribapena: Gauzazko laguntza hauen helburua da hautatutako toki-erakundeen ekimenak Red.es-en bidez garatzea. Azpiegitura teknologikoen hornikuntza eta horiei lotutako soluzioak izango dira ekimen horiek, hirian edo lurraldean teknologia erabiliz garapen ekonomikoa bultzatzeko; halaber, hautagai izango dira teknologia aurreratuak erabiliz, hiriek eta lurraldeek bildutako datuei balioa emateko eta horiek ekonomia- eta enpresa-jarduerarako duten potentziala aprobetxatzeko jarduketak ere, zerbitzu berriak eta berrikuntza garatzen lagunduz.

Aurrekontua: 89.155.632 €

*Ikusi FITXA

2026/03/02

(13:00etan)

ERALDAKETA
DIGITALERAKO ETA
FUNTZIO
PUBLIKORAKO
MINISTERIOA

*Ikusi FITXA

2026/03/30

ENERGIAREN EUSKAL
ERAKUNDEA– **EUSKO
JAURLARITZA**

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN BIDEZ AUTOKONTSUMORAKO ENERGIA ELEKTRIKOA SORTZEKO ETA KONTSUMO TERMIKOAK ELEKTRIFIKATZEKO LAGUNTZAK

Azken hartzaileak: kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta lurraldeko eremu txikiagoko beste toki-erakunde batzuk, udalerriak, udalerrien mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta EAEko beste toki-erakunde batzuk, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera.

Deskribapena: EAEn energia berriztagarri elektrikoen hedapena sustatze aldera, programa honen xedea da energia berriztagarrien bidez autokontsumorako elektrizitatea sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko jarduketak egitea.

Aurrekontua: 80.000.000 €

EUROPAR BATASUNAREN PROGRAMA ETA EKIMENETAN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

Azken hartzaileak: Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalak; haien udal-erakunde autonomoak eta udal-enpresa publikoak; Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalek parte hartzen duten hurrengo elkarteak: Bizkaiko mankomunitateak, Bizkaiko «Behargintzak» Enplegurako Laguntzarako Zentroak, Bizkaiko Federazioa eta Landa Garapeneko Elkarteak, Bilbo-Bizkaia 2030 Turismo Estrategian aintzatetsitako Bizkaiko eskualdeko turismo-kudeaketako erakundeak (Gorbeialde, Jata Ondo, Urkiola, Urremendi, Enkartur eta Lea Artibai Fundazioa).

Deskribapena: Dirulaguntzen xede izango dira Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalei edo udal horiek parte hartzen duten elkarteek laguntza teknikoa eta kanpoko aholkularitza ematea, baldin eta laguntza eta aholkularitza horien helburua bada 2025eko azaroaren 1etik 2026ko urriaren 31ra bitartean Europar Batasuneko programa eta ekimenetan proiektuak aurkeztea.

Aurrekontua: 60.000 €

*Ikusi FITXA

**2026/09/30 edo
aurrekontua agortu
arte**

*Ikusi FITXA

**2026/10/31 (13:30ean)
edo aurrekontua
agortu arte**

Ogasun eta Finantza Saila –
**BIZKAIKO FORU
ALDUNDIA**

Lurralde Orekaren eta
Lurralde Antolamenduaren
Saila – **ARABAKO
FORU ALDUNDIA**

AURREIKUSI EZIN DIREN EGOERETAN TOKI ERAKUNDEAK FINANTZATZEKO GAI EZ DIREN EZUSTEKO ETA LARRIALDIKO OBREI AURRE EGITEKO DIRULAGUNTZAK

Azken hartzaileak: Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak, udalak (Vitoria-Gasteizkoa izan ezik) eta kontzejuak.

Deskribapena: Premiazko ustekabeko gastuak eta larrialdiko obrak finantzatzeko dirulaguntzak ematea da deialdiaren helburua.

Aurrekontua: 300.000 €

EUSKADIKO TOKI-ADMINISTRazio PUBLIKOAREN ENERGIA-JASANGARRITASUNA HOBETZEKO AZTERLANAK ETA AUDITORIAK EGITEKO LAGUNTZAK

Azken hartzaileak: kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta eremu txikiagoko bestelako lurraldeko toki-erakundeak; udalerri-mankomunitateak, Arabako lurralde historikoko kuadrillak eta bestelako toki-erakundeak, toki-araubideko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoarekin bat; toki-erakunde horiei lotutako edo haien mendeko erakunde publikoak; udal-enpresa publikoak, baldin eta atal honetan aurreikusitako erakundeek horien kapital sozialean duten zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza % 50etik gorakoa bada; fundazioak, baldin eta fundazioaren patronoa toki-erakunde bat bada, edo haren patronatua, nagusiki, toki-erakundeko ordezkariez osatuta badago; partzuergoak eta mota guztietako gainerako erakunde instrumentalak, baldin eta nagusiki toki-kapital publikoaren partaidetza badute edo haien posizio nagusia toki-erakunde batena bada.

Deskribapena: Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden instalazio eta eraikin publikoetan energia aurrezte eta efizientzia lortzea eta energia berriztagarriak erabiltzea helburu duten ekintzak identifikatu eta sustatzeko, argitara eman da Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntza-programa hau.

Aurrekontua: 5.000.000 €

*Ikusi FITXA

**2026/12/31 edo
aurrekontua agortu
arte**

*Ikusi FITXA

**2028/10/17 edo
aurrekontua agortu
arte**

ENERGIAREN EUSKAL
ERAKUNDEA– **EUSKO
JAURLARITZA**

LURRALDE OREKAREN
ETA LURRALDE
ANTOLAMENDUAREN
SAILA – **ARABAKO
FORU ALDUNDIA**

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILAREN TOKI ERAKUNDEENTZAKO NORGEHIAGOKA BIDEZKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2026KO DEIALDIARI, AUZOLAN SISTEMAREN BIDEZ EGINDAKO JARDUKETAK GAUZATZEKO TRESNEN ETA NORBERA BABESTEKO EKIPOEN EROSKETA FINANTZATZEKO.

Azken hartzaileak: Arabar kontzejuak, baita 500 biztanle baino gutxiagoko gunen bakarreko udalak edo biztanle gehiagokoak ere bai auzoetan edo udalari zuzenean atxikitako biztanle gunetan jarduerak egiteko, Arabako Foru Izendegian hala jasota baldin badaude berariaz eta 500 biztanle baino gehiago ez badituzte.

Deskribapena: Auzolan sistemaren bidez egindako jarduketak gauzatzeko tresnen eta norbera babesteko ekipoen erosketa finantzatzeko.

Aurrekontua: 100.000 €

*Ikusi FITXA

2026/03/10

LURRALDE OREKAREN
ETA LURRALDE
ANTOLAMENDUAREN
SAILA – **ARABAKO
FORU ALDUNDIA**

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO 20.000 BIZTANLETIK BEHERAKO UDALERRIEK UDALERRI BARRUKO GARRAIOA FINANTZATZEKO LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILAREN DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKA BIDEZ EMATEKO DEIALDIA

Azken hartzaileak: Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriak.

Deskribapena: Udalerri barruko garraioa finantzatzeko dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko.

Aurrekontua: 55.000 €

*Ikusi FITXA

2026/03/17

JASANGARRITASUN – GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIRULAGUNTZA HAUEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA 2026KO DEIALDIA: GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALEI, TOKI-ENTITATE TXIKIEI, MANKOMUNITATEEI ETA MERKATARITZA UDAL ETA ESKUALDE SOZietATEEI TRANTSIZIO ENERGETIKOAREN ETA KLIMA-ALDAKETAREN PLANGINTZA, AURREZPEN ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERA TOKI MAILAN BULTZATZEKOAK.

Azken hartzaileak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei, toki-entitate txikiei, mankomunitateei eta merkataritza udal eta eskualde sozietateei.

Deskribapena: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei, toki-erakunde txikiei, mankomunitateei eta merkataritza udal eta eskualde sozietateei, azterketak, planak eta proiektuak egin ditzaten, helburu dutelarik trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren plangintza, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.

Aurrekontua: 390.000 €

ADIN GUZTIENTZAKO LURRALDE BIHURTZEN LAGUNDUKO DUTEN TOKI ENTITATEEN PROIEKTUETARAKO 2026RAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDI PUBLIKOA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN

Azken hartzaileak: Honako hauek izan daitezke dirulaguntza honen onuradun: Euskadi Lagunkoia Udalerrien Sareari eta OM Eren Hiri Adeitsuen Munduko Sareari atxiki zaizkion edo, atxikita ez badaude, atxikitzeko eskaera egin duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, mankomunitate zein udal partzuergoak, baldin eta beren lurralde-eremuan OM Eren proiektua ezartzeko erabakia hartu badute edo ezartzen hasi badira.

Deskribapena: Foru dekretu honen helburua da Bizkaiko Foru Aldundiak Osasunaren Mundu Erakundearen metodologian oinarritutako «Hiri Adeitsuak Adinekoekin» Proiektua (OM Eren Proiektua, aurrerantzean) Bizkaiko Lurralde Historikoan ezartzea sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak 2026an norgehiagokarik gabeko araubidean emango dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onartzea.

Aurrekontua: 200.000 €

*Ikusi FITXA

2026/03/18

*Ikusi FITXA

2026/05/25

DIRULAGUNTZA HAUEN OINARRI ARAUTZAI EAK ETA 2026KO DEIALDIA: UDALEI ETA HONDAKINAK KUDEATZEN DITUZTEN MANKOMUNITATEEI ZUZENDUTAKOAK, SAKABANATUTAKO ZABORREN PILAKETA FOKUAK PREBENITZEN ETA ZUZENTZEN LAGUNDUKO DUTEN JARDUKETAK EGITEKO.

JASANGARRITASUN –
**GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA**

Azken hartzaileak:

— Udalak.

— Hondakinak kudeatzen dituzten mankomunitateak edo, hala badagokio, horien mendeko sozietate instrumentalak.

Deskribapena: Sakabanatutako zaborrak metatzeko fokuak prebenitzen eta zuzentzen lagunduko duten jarduketak gauzatzea.

Aurrekontua: 125.000 €

*Ikusi FITXA

2026/03/27

Udal Aukerak zerbitzua



Toki-erakundeentzako laguntza-deialdiak (EAE, Estatua, Europa)

*EUDELek eskaintzen duen informazio eta laguntza zerbitzuak honako hauek biltzen ditu:



Deialdi bakoitzaren FITXA + NEWSLETTERRA (hilabetekaria)



OHIKO-GALDERAK (FAQ) ETA LAGUNTZA-DOKUMENTUAK, Next funtsak kudeatzeko

<https://udalaukerak.eudel.eus>

Deialdi aktibo guztiak eta material lagungarriak zerbitzuaren webgunean eskuragarri daude.